

## 2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKA

**Programa:** 17 LANDA AZPIEGITURAK

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

**Departamento:** 10 DESARROLLO ECONÓMICO Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**Programa:** 17 INFRAESTRUCTURAS RURALES

### SAILAREN MEMORIA

### MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

#### I. MEMORIA

ARABAKO LANAK, S.A. foru sozietate publikoa da eta Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 10eko 816/1998 Erabakia dela bide eratu zen, urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak, ekonomia jardueren eta deszentralizatutako foru zerbitzu publikoen kudeaketari buruzkoak, ezarritakoen arabera.

2012an, partaidetza zeukan zenbait sozietate publiko berregituratzen hasi zen Arabako Foru Aldundia, egitura horiek optimizatzeke, errazteke eta, aldi berean, eskalako ekonomiak erdiesteko helburuz.

Xede horrekin bat, Arabako Lanak, S.A., Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Sozietate Anonimoa-Arabarri eta Arabako Ur Agentzia SAU sozietateek baltzuen edo sozietateen taldea sortu zuten, Arabako Lanak, S.A. buru zutela, sozietate guztiak bateratzeko lehen urratsa emate aldera.

Diputatuen Kontseiluaren irailaren 11ko 459/2012 Erabakia dela bide, Aldundiak Arabarri (% 55,90) eta Arabako Ur Agentzia SAU (% 100) zeuzkan akzioak Arabako Lanak, S.A. sozietateari saldu zizkion, lehen biak desegiten eta likidatzen hasteko.

2012ko irailaren 13an, Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Sozietate Anonimoa eta Arabako Ur Agentzia SAU sozietateetako langile guztiak Arabako Lanak, S.A. sozietateak hartu zituen subrogazioan.

Arabako Lanak, S.A. sozietatearen estatutuak aldatu ziren, sozietatearen helburuetan, xurgatutako sozietateen helburuak eta eginkizunak txertatzeko.

Arestian aipatutako sozietate publikoak berregituratzeko diseinatu zen eragiketaren oinarri behinena honakoa zen: Arabako Lanak, S.A. sozietatea Arabako toki erakunde berezko baliabide bihurtzeko urratsa bideragarria zen, eta toki erakunde guztiei gonbita egin zitzaizen sozietatearen akziodun

#### I. MEMORIA

ARABAKO LANAK, S.A. es una sociedad pública foral constituida mediante Acuerdo del Consejo de Diputados 816/1998 de 10 de noviembre, de conformidad con las previsiones contenidas en la Norma Foral 15/1987 de 30 de octubre, sobre gestión de Actividades Económicas y Servicios Forales Descentralizados.

En el año 2012 la Diputación Foral de Álava inició un proceso de reorganización de varias de las sociedades públicas en las que poseía participación de cara a optimizar dichas estructuras, con la intención de simplificarlas y obtener a su vez economías de escala.

Con este fin, las sociedades Arabako Lanak, S.A., la Sociedad Anónima de Gestión del Patrimonio Cultural Edificado de Álava-Arabarri y Álava Agencia del Agua, S.A.U. formaron un grupo de sociedades con Arabako Lanak, S.A. como cabecera del mismo, como paso previo a la total unificación de las mismas.

Por Acuerdo del Consejo de Diputados 459/2012, de 11 de septiembre, la Diputación dispuso vender las acciones que poseía tanto en Arabarri (55,90%) como en Álava Agencia del Agua, S.A.U. (100%) a Arabako Lanak, S.A. como paso previo a la disolución y liquidación de las dos primeras.

Con fecha 13-9-2012 todos los trabajadores de la Sociedad Anónima de Gestión de Patrimonio Cultural Edificado de Álava y Álava Agencia del Agua, S.A.U., fueron subrogados a Arabako Lanak, S.A.U.

Los estatutos sociales de Arabako Lanak, S.A. se reformaron para acoger en su objeto social tanto los fines como las funciones de las sociedades absorbidas.

La operación diseñada para la reorganización de las entidades públicas mencionadas se sustentaba en la premisa de que resultaba factible convertir Arabako Lanak, S.A. en un medio propio de los entes locales alaveses, a quienes se invitaba a participar en el accionariado de la sociedad.

## 2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKA

**Programa:** 17 LANDA AZPIEGITURAK

gisa parte hartzeko.

Horretarako, Arabako Lanak sozietatearen 2012ko azaroaren 8ko Akziodunen Batzar Nagusiak sozietatearen estatutuak eraberritu zituen eta akzioen mota berezia sortu zen dohaintzan emateko hala eskatzen zuten lurraldeko toki erakunde guztiei, Arabako Lanak sozietatea akziodun guztien berezko baliabide eta zerbitzu tekniko bihurtzeko xedez.

2012ko azaroaren 13an, Diputatuen Kontseiluak doako besterentzea egiteko erabakia hartu zuen, Arabako Lanak, S.A. sozietatearen kapitala osatzen zuten B motako akzioak dohaintzan emateko kontratu egokiaren bitartez, hala eskatzen zuten Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen alde.

2013ko ekitaldian, 44 toki erakunde sartu ziren akziodun gisa Arabako Lanak sozietatean.

Arabako Lanak, S.A. sozietate publikoa Arabako Lurralde Historikoko azpiegiturak zuzenean kudeatzeko sortu zen, baina 2012ko ekitalditik aurrera, Arabako toki erakundeen eskariei erantzuten hasi zen. Hala, bada, 2014ko ekitaldian, toki erakundeen eskaeren zioz fakturatu zen guztizkoaren % 87,92.

Lehiaren Euskal Agintaritzak 2015eko azaroaren 11n ebazpena eman zuen 7/2013 Zehapen Espedientean, eta adierazi zuen Arabako Lanak, S.A. Arabako toki erakundeek (hau da, haren akziodunek) berezko baliabide gisa erabiltzea lehiaren aurkako akordioa zela, Lehia Defendatzeko Legearen 1.1.a) artikuluan arau hauste gisa tipifikatua, eta jokabide arau hausle hori eta helburu bera daukaten jokabideak bertan behera uzteko agindu zuen.

Lehiaren Euskal Agintaritzaren ebazpen horrek ezarri zuenez, Arabako Lanak, S.A. ezin da toki erakunde akziodunen berezko baliabidetzat hartu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 24.6 artikulua arautzen dituen bost eskakizunetatik bi urratzen dituelako.

Horiek horrela, Arabako Lanak, S.A. sozietatea toki erakunde akziodunen berezko baliabidetzat hartu ahal izateko, arazoaren 13ko 574/2012 Erabakia funtsatzeko arauari eragiten dieten egiturazko

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

**Departamento:** 10 DESARROLLO ECONÓMICO Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**Programa:** 17 INFRAESTRUCTURAS RURALES

Para ello la Junta General de Accionistas de Arabako Lanak de 8 de noviembre de 2012 reformó sus estatutos sociales de manera que se creó una clase especial de acciones destinada a ser donada a las entidades locales del territorio que así lo solicitaran, con el fin de que Arabako Lanak se convirtiera en medio propio y servicio técnico de todos sus accionistas.

El Consejo de Diputados acordó con fecha 13 de noviembre de 2012 la enajenación gratuita, a través del oportuno contrato de donación de acciones de la clase B del capital social de Arabako Lanak, S.A.U. a favor de las entidades locales del Territorio Histórico de Álava que así lo solicitasen.

En el ejercicio 2013 se incorporaron como accionistas de Arabako Lanak 44 entidades locales.

Arabako Lanak, S.A., que nació como una sociedad pública para la gestión directa de las infraestructuras del territorio histórico de Álava, a partir del 2012 desplazó su actividad hacia los encargos de las entidades locales alavesas, de modo que en el año 2014 las encomiendas de los entes locales supusieron el 87,92% de su facturación.

Con fecha 11 de noviembre de 2015 el Consejo Vasco de la Competencia dictó Resolución en el Expediente sancionador 7/2013 declarando que la utilización de Arabako Lanak, S.A. como medio propio de los entes locales alaveses, accionistas suyos, suponía en realidad un acuerdo anticompetitivo, tipificado como infracción en el Art. 1.1.a) de la Ley de Defensa de la Competencia, ordenando el cese de la conducta infractora y la reiteración de conductas que tuvieran el mismo objetivo o lleven aparejado tal fin.

Dicha Resolución de la Autoridad Vasca de la Competencia establecía que Arabako Lanak, S.A. no podía ser considerada medio propio de sus entes locales accionistas en la medida en que incumplía dos de los cinco requisitos exigidos por el art. 24.6 TRLCSP.

Para que Arabako Lanak, S.A. pudiera ser considerada medio propio de los entes locales accionistas resultaría necesario afrontar reformas estructurales que afectan a las previsiones que

## 2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKA

**Programa:** 17 LANDA AZPIEGITURAK

aldaketak egin beharko ziren; bai eta Arabako Lanak, S.A. sozietatearen hitzarmen orokorrari, Arabako Foru Aldundiari eta 2015eko uztailaren 31n aldatu ziren sozietatearen estatuei eragiten dieten aldaketak ere egin beharko ziren. Aldaketa horien guztien munta eta aldaketek ekarriko luketen jauzi kualitatiboa ezin gaindituzko oztopoak dira Arabako Lanak, S.A. sozietatea toki erakundeen berezko baliabide gisa erabili ahal izateko.

Hortaz, Arabako Lanak sozietatea baztertu zen toki erakundeen berezko baliabide gisa erabiltzeko, lehen azaldu ditugun arrazoiengatik, eta foru sozietateak berrantolatzeko 2012an hasitako bateratze eragiketaren funts ekonomiko eta finantzariora galdu zen.

Arabako Lanak, S.A. Aldundi honen berezko baliabidetzat erabiltzeari dagokionez, sozietatearen jarduera guztiz moteldu da eta, zalantzarik gabe, azken 10 urteotan jasotako eskaerak pixkanaka gutxitzen joan dira, harik eta, gaur egun, jarduerarik gabe geratu arte. Nolanahi ere den, Aldundiaren berezko baliabidetzat erabilita, Arabako Lanak, S.A. sozietatea bideraezina zen, arlo juridikoaren zein arrazionaltasun ekonomikoaren ikuspegitik.

Baliabide publikoak erabiltzeko eraginkortasunaren eta eragingarritasunaren inguruko zuzenbidezko ordenari dagozkion arrazoi horien eraginez, alde batera utzi behar da, halabeharrez, Arabako Lanak, S.A. sozietateari eusteko zeinahi proposamen, baltzu horren baitan sartu ziren sozietateek lehen gauzatzen zituzten jarduera batzuei helduta.

Ondorioz, Diputatuen Kontseiluak 2016ko maiatzaren 11n Arabako Lanak, S.A. sozietatearen administrazio kontseiluari eta batzar nagusiari eskatu zien erabaki egokiak har zitzaten sozietatea desegiteko eta likidatzeko.

Arabako Lanak, S.A. foru sozietate publikoaren Akziodunen Batzar Orokorrak 2016ko uztailaren 20an sozietatea desegitea erabaki zuen.

### **II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA**

Helburuak ez dira osorik (% 100) bete.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

**Departamento:** 10 DESARROLLO ECONÓMICO Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**Programa:** 17 INFRAESTRUCTURAS RURALES

servieron de fundamento al Acuerdo 574/2012, de 13 de noviembre; al Convenio General de Arabako Lanak, S.A. y la Diputación Foral y a los propios Estatutos de la Sociedad reformados el 31 de julio de 2015. La entidad de estas reformas y el cambio cualitativo que representan constituyen obstáculos insalvables para reconstruir Arabako Lanak, S.A. como medio propio de los entes locales.

Descartada Arabako Lanak como medio propio de los entes locales por las razones apuntadas se desvanece y desaparece el fundamento económico-financiero de la operación que perseguía la reorganización de las sociedades mediante el proceso de integración iniciado en 2012.

Sobre Arabako Lanak, S.A. en su vertiente de medio propio de esta Diputación, su actividad ha sufrido una decadencia tan notable en los últimos años los encargos recibidos han mermado de forma progresiva hasta la práctica desaparición. En cualquier caso Arabako Lanak, S.A. como medio propio de Diputación resultaba inviable tanto en el plano jurídico como en el de la racionalidad económica.

Estas mismas razones de orden jurídico de eficacia y eficiencia en la utilización de los recursos públicos descartan también cualquier planteamiento que pretendiera justificar el mantenimiento de Arabako Lanak, S.A. continuando alguna de las antiguas actividades desempeñadas por las sociedades que se integraron en su seno.

En consecuencia, el Consejo de Diputados propuso con fecha 11 de mayo de 2016 al Consejo de Administración de Arabako Lanak, S.A. y a su Junta General que adoptasen los acuerdos pertinentes en orden a proceder a su disolución y liquidación.

Con fecha 20 de julio de 2016 la Junta General de Accionistas de la Sociedad Pública Foral Arabako Lanak, S.A. acordó proceder a la disolución de la sociedad.

### **II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS**

No se han cumplido los objetivos al 100%.